

kolaborazioak

**PPren politika
fazista
harroputzaren
bitartez euskal
nazio arazo zahar
eta larria konpon
daitekeela uste
dutenek, ez dute
argitasun handirik
erakusten, eta
Kondaira-kultura
gaitzik ere ez.
Hemen soluzio
bakarra, PPko
jaun-andereok,
Auto-
Determinazioa
bideratzetik
pasatzen baita.
Euskal Herriaren
hautzaroz izutia
betirako gairiditua
dugulako. Hemen
ausardia behar da
mintzatzen
hasteko**

Horixe da egia. Gero eta ilunago ageri da zerua. Eta etsipena hedatzen ari da bazterretan.

Argi bila abiatu ere, eta atzera edo inguruera begiratu, egoera antzekorik aurki daiteke. Bai. Baina kondaira ez baita inoiz eta inon osoki eta hertsiki errepikatzen, ilunpean geratu beharra dagokigula dirudi.

Orain dela bi hilabetez geroztik, Herri Batasunaren Buruzagitza politikoa osoa dago preso. Eta egoera eskandalagarri hau normalizat hartu izatea nahi dute bai Madrilek, bai hemengo «aginte autonomikoe». Haratago ere bai, dirudienek; «beste Mahai Nazionala» aipatzen baitgute, gure Mahai Nazional bakarra kartzelan dagoen horixe dela ulertu gabe; eta mesede galanta egitea litzatekeela guk orain «beste Mahai bat» izendatzea eta publiko egitea, HBren egoera horrela «normalizatuz». Tejeroren hitzak berresanez, guk ere *aguí no pasa nada?* Horixe falta genuke! Gure Buruzagitza politikoa preso dago. Nahiz gero, beharren arabera, beste Batzorde bat edo zortzi hautatu, eta geure artean abiarazi.

Beste alor batean, berriz, ETaren zuzendaritzako kide garrantzitsu bat. Antton Etxebeste bitartekari ofiziala, bera ere preso dago.

Madrilek bilatzen duen «soluziobidea»-ren kolorea, horretara, ezin nabarmenago ageri da. Madrilek (Parisen laguntzarekin), indar autonomistak irensei eta erabat hezi ondoren, orain Ezker Abertzalearen txikizkia eta lepo-mozketa nahi du, politiki-hertsaketa azkartuz, eta buruak moztuz.

Helburu horretan bere legetasuna bera ere ukatzeko eta zafrazteko prest dago; Ameriketako garaieran burutuak balentria imperialak berrizatu nahi balitu bezala.

Euskal Herriari, hitz batez, osotara errenditzea eskaintzen zaio. Espainiak ezarritako marko errejonala geure egitea, geure burua geure estekaturik behin betiko ematea, eta kito. Españolek irabazi dutela onar dezagun nahi dute: *Sed lo que os corresponde en la ordenación general decidida, hablad cristiano de una puta vez, abandonad vuestros sueños separatistas, sed norteños sumisos, sed cámbros orientales. Y terminemos esta broma pesada del Norte discoloro.* Horra mezua.

AEKren kontrako eraso lotsagalduek, gure Olenztzko gijaxoaren beraren aurkako irainek, «Ermuko izpiritu» bataiatu duten betiko gorroto



Ezer ez da somatzen

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA, «TXILLARDEGI» • Hizkuntzalari eta idazlea

anti-euskaldunak, *solución final* horren kutsu nabarmena dute. Oraingoan, 1937an bezalaxe, deuseztu egin nahi gaituzte. Bigarren Gernika bat dute gogoan.

Aurten beteko ditu Torre Altonaga bizkaitar presoak bere 20 kartzela-urteak. Nahiz odol-delitirik ez izan. Euskal Herria, zinez, Atlantikoko Turkia bihurtu nahi dute. Ondotik datozkio, orpoz orpo, 19, 18, 17... urte daramatzatenak. Nork aipatzen du gudari horien helburua zuzena dela? Herri zapaldu baten askapena dutela helburu?

Hain zuzen ere, presoan eskubide minimoak berak, espainiar legetasunak aitortzen dituenak berak, gupidarik gabe zafrazten dira behin eta berriz. Hots, orain dela bi urte gora Donostiako Katedralean abiatu zen ekintza ibiltari baketsua, gosc-greba txandakatu 15 laguneko multzotan etenduririk gabe beti ari. zein «pacificistak» aipatzen du, edo gogoan hartzen?

Areago, Baskongadetako Parlamentuak 1996ko urriaren 3an, lege ofiziala eskutan, presoan sakabana-keta eteteko eskubidea egin zuten. Presoek legez dagoen eskubide hau aitortuz: *derecho de los presos a cumplir sus penas lo más cerca posible de sus lugares naturales.*

Madrilgo gobernuak hala ere eutsi egin dio presoan sakabanaketari; beroriei eta berorien seuitartekoti sekulako zama erantsiz.

Legearen aurkako jokatze ofizial hauek, dena dela, ez dira batere herriak: Itoizko lanak ongi jakina denez, ez dira oraindik gel-

ditu. Eta Filesa-ko errudunak berehala irten dira presondegitik. Adibide bakar bat ematekotan.

Gauzak horrela, etsipen-giroa hedatzen ari da gero eta azkarkiago, batera herriak eta ezintasunak hazia: «ezek ez du bidegabekeri trapzeria hau mugituko».

Besterik ere bazekarren, ordea, 1996-X-3ko Itunak: *En el supuesto de que se desoyeran sus peticiones por parte del Ministerio del Interior español, solicitará una reunión con la Comisión de Derechos Humanos del Consejo de Europa, a fin de denunciar la situación de alejamiento y de establecer el cauce procedimental idóneo para demandar ante el Tribunal Europeo de Derechos Humanos de Estrasburgo.* Noiz bisitatuoa?

Esan beharrik ez dago, bestalde, Euskal Herriak, beste edozein herrik bezala, Auto-Determinatzeko eskubide sakratua duela; eta Gasteizko Parlamentuak berak ere onartu zuela eskubide hori.

Kasorik ez! Nork bultzatzen du hemen bortizkeria? *Un sano regionalismo, un no menos sano café descafeinado para todos los españoles,* eta kito. Horra menua.

Gertakari ilara kezkarri horretan, eta ez hodeietan, ugaitzen ari dira ETaren ekintza gogorak. doilorrak ere bai gehienek ustez. Baina Madrilek ez du konponketa zirikiturik erakusten, eta indarrean gure eskubideak oro ukatu eta gu guztiok lotsagabeki zanpatu eta oinperatu nahia baizik ez du bideratzen.

Denak dirudi hertsirik, hitz batez. Eta soluzio-bide-

rako bitartekari nagusi izan litekeen giza-multzoa bera, eta HBren Mahai Nazionala oso preseski, lau hormaren artean usteltzea hautatu du konponbidetzat. Jokabide harro eta itsu honek, ez du «politiko» hitza bera merzei. Aurkari politikoa zuzendaritzaren espexeratzeak ezin baitezake porrota eta giroaren pozoinketa besterik ekar.

Alta, kondaira adibide argitsuak ez dira falta mende honetan bertan.

1956ko urte bukaeran, esate baterako, Mayor Orejak txalotuko zukeen balentria militar horietako bat burutu zuen frantses Armadak aljeriar mogimendu abertzalea itoztekoan. Eta Ben Bella, Ait Ahmed eta Boudiaf buruzagiak zeramatzan hegazkin militarra lurrrera arazi zuten. Hegazkin hau marokorra zen, gainera!

Eskubide gutzietan iseka eginez, eta arau intenazionala gaitziki ostikatuz, hantxe denitu zituzten frantsesek Ben Bella eta beronen burukideak. Okupazio indarrak azkartu zituen Frantziak, bestalde: 1956an bakarrik beste 400.000 frantses soldadu (euskaldun abertzale ezagun batzuk barne!) Aljeriara eramanez. *Il faut renforcer la répression contre le terrorisme fellagha,* argitu zuten.

Handik bi urtera, ordea, Mao-ren Txinak hartu zuten aintzakotzat borroka latzean ari zen aljeriar independentisten FLN delakoa. Gero ilaran gauza bera egin zuten beste gobernuak. Eta 1962ko udan, Ben Bella kartzeleratu eta sei urteetara, amore eman behar izan zuten

Frantziak. Eta Aljeria Askatua (*une Algérie algérienne* esan zuen De Gaullek, fazisten *Algérie française* delakoa zaputuz) onartu zuen. Baina, hori bai, milioi bat aljeriarrek gatazkan bizia utzi behar izan zutelarik. Orrialde bikaina Frantziaren kondairan... Soluzioa zein? Ben Bellaren bila kartzelara joan, eta presondegiaren trukean Aljeriaren Zuzendaritza eskaini. Hau ere Historia da. Baina madrildarrek ez digute kondatzen.

Bide beretik, eta Espainiakoan oraingoan, 1930 urtean.

Madrilen, Primo de Rivera-ren ondoren, Dámaso Berenguer diktadorea buru: «Dictablanda»-tik nola irten ez zekielerik. Eta Jakan, kolpe militarra gertatu, abenduaren 12an. Gobernu beldurrak hartu, eta «golpistak» ahusilatzea erabaki. Fermín Galán kapitaina paterera, eta politiko «susmaggari» mordo bat kartzelara eramanez. Hauen artean Alcalá Zamora, Miguel Maura, Largo Caballero, Fernando de los Ríos, Albornoz, eta abar luze bat. Denok preso. Edertor!

Handik 4 hilabetera, ordea, udal-hauteskundeak ezkerak irabazi. Eta Errepublikak gidatuko zuten gizonengana joan behar. Nora? Kartzelara? Eta horrela Niceto Alcalá Zamora kartzelatik aterata, eta... Errepublikako Presidente hautatu zuten!

Hemen ere, agian, gaur kartzeletan dauden gizonengana joan beharko dute gaurko Berenguer-en ordekoek (ez naiz txantxetan ari), bestetara ezinda. Nork daki? Ben Bella eta Alcalá Zamora kartzelatik ateratu zuten Lehendakaritza eskaintzeko.

Ez dirudi oraingoz gertakari berberen bezperan gaudenik. Ez. Baina 1931n ere jendeak ez zuen uste Errepublikak heldu zela, eta Alfonso XIII.a atzerriarako bidea hartzeko bezperan zegoenik.

PPren politika fazista harroputzaren bitartez euskal nazio arazo zahar eta larria konpon daitekeela uste dutenek, zinez, ez dute argitasun handirik erakusten, eta Kondaira-kultura gaitzik ere ez. Hemen soluzio bakarra, PPko jaun-andereok, Auto-Determinazioa bideratzetik pasatzen baita. Euskal Herriaren hautzaroz izutia betirako gairiditua dugulako. Hemen ausardia behar da mintzatzen hasteko.

Geure atzotiz zaharra errepikatuz: «Geroak erranen».